

GAZTEAK ETA EUSKARA

Patxi Juaristi

Orain arteko ikerketek erakutsi duten bezala, gazte mota ugari eta oso desberdinak bizi dira Euskal Herrian; bizimodu, ideia eta gizartearekiko ikuspuntu oso desberdinak dituztenak. Dena dela, badaude euskal gazteek identifikatzen dituzten zenbait berezitasun.

PISAren emaitzen arabera (Ekonomia, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak bultzatutako Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa), Hego Euskal Herriko ikasleek hobetzeko asko dute, baina munduko herrialde garatuenetako ikasleen parean dabilta. 2006ko datuen arabera, Euskal gaztetxoak ez dira beste herrialde garatu batzuetakoak baino jakintsuagoak, baina ezta ezjakinagoak ere.

Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen *Gazteen adierazleak 2009* lanean, bestalde, argi agertzen da Hego Euskal Herriko gazteek Estatuko beste toki batzuetakoek baino prestakuntza akademiko hobeagoa dutela. Adibide bat ematearren, 2006an, Nafarroako 20 eta 24 urte bitarteko gazteen %82,9ak eta EAEko %81,2ak bukatuta zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Estatu espainiarreko batez bestekoa %61,6koa zelarik.

Baloreei dagokionez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteek garrantzi gutxi ematen diote erlijioari eta politikari. Aldiz, dirua eta ondasun materialak dira euskal gazteen kezkarik handienetakoak. Modu berean, adiskideek edo familiak berak baino ardura handiagoa eragiten diete besteek eurei buruz dituzten iritziak edo norberaren irudiak edo itxurak. Horrez gain, EAE-ko 15-29 urte bitarteko gazteek gizarte sareetan duten parte hartzea nahiko txikia da: bakarrik gazteen %3,4-k parte hartzen du alderdi politiko batean edo ekintza-talde batentzat lan egiten du, %5-4k sindikatu bateko kide da edo bertan parte hartzen du eta %8,4k elkarte edo GKE batean lan egiten du.

Euskararen ezagutzari dagokionez, azken hamarkadetako gazterik euskaldunek dauzkagu, nagusiki, eskolari esker. 1997-1998 ikasturtean, D ereduan ikasten zuen EAE-ko gazten %34,97ak, eta 2006-2007 ikasturtean, gazteen %50,46ak. Bukatzeko esan, gure ume eta gazteak gero eta gehiago kontsumitzen dituztela Disney Chanel eta antzerako ikus-entzunezko komunikabide eta produktu kultural atzerritarrak, euskarazkoen kaltetan.

Euskal gazteak herrialde garatuetan bizi diren beste gazte askoren antzerakoak dira: ikasteko gaitasuna badute, materialistak dira, gizarte sareetan gutxi parte hartzen dute eta atzerriko produktu kulturalak gustatzen zaizkie. Desberdintasun

garrantzitsuenetariko bat da euretariko askok euskaraz dakitela eta gutxitutako komunitate linguistiko baten parte direla.

Euskaldun sentituko ote dira nagusitzen direnean? Euskararik erabiliko dute etorkizunean gaur egun eskolan euskalduntzen direnek? Ez ote dira materialistegiak gurea bezalako kultura txiki bat gordetzeko?

Onartu egin behar dugu euskal gazteei sortu diegun testuinguruak ez diela euskaldun izateko aukera askorik ematen. 2006. urtean egin zen euskararen kale erabileraren neurketaren arabera, Euskal Herriko zazpi biztanletik batek (%13,5) baino ez zuen kanean euskara erabiltzen. Bestalde, gazteentzako ikus-entzunezko euskarazko produktuen merkatua eta eskaintza txikiegia da, produktu kultural atzeritarren aurka borrokatzeko. Gainera, 2005ean D ereduan ikasten zuten ikasleen %68k ez zuen gainditzen 16 urterekin beharrezkoa den euskararen ezagutza maila. *Gazteak ez jakinez, zaharrak ezinez, egitekoak doaz gaizki eginez..* Azaroaren 19an, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak antolatuak, XV. Jagon Jardunaldiak egin ziren Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan "Gazteak, aisialdia eta euskara" gaiaren inguruan.

Jardunaldian ikusi genuen, agian, ikuspuntu linguistikotik asko eskatzen diegula gure gazteei, eta gutxi ematen. Euskaraz hitz egiten jarri nahi ditugu, testuinguru erdaldunetan. Euskal produktuak kontsumitzera bultzatu nahi ditugu, beste hizkuntzetako produktuak erakargarriagoak direnean. Egiatan, gure frustrazioak proiektatzen ditugu beraiengan, bizi duten errealitate linguistikoa zaila dela konturatu gabe. Izan ere, nola eskatu ahal diezaiekegu gazteei euskaraz hitz egitea nagusiok erdaraz jo eta ke aritzen garenean?

Zalantza gabe, gazteen euskararen erabilera sustatzeko bizi dugun diglosia egoera gainditu beharra dago. Nagusio joera linguistikoak aldatu gabe, zaila izango da gazteen egoera soziolinguistikoa iraultzea. *Egintzak ez badeutse berbei jarraitzen, honek ez dute balio ezertarako.* Dena dela, Jone Miren Hernandez-ek jardunaldian esan zuen bezala, epe labur eta ertainean, garrantzitsua izan daiteke gazteen euskararen ezagutza, erabilera eta motibazioak beste parametro batzuetatik aztertzea. Izan ere, gaur eguneko parametroetatik abiatuta ondorioztatzen dena da euskara arrotza dela gazteentzat, eta, agian, ondorio horren arabera proposatzen diren irtenbideak ere ez dira aproposenak, gazteak euskara eta euskal kulturara erakartzeko. *Begiak noraino, nahiak haraino.* Jonek Miren Hernandez-ek esan zuen bezala, gazteek euskararekiko duten harremana aztertzerakoan beste begi batzuekin begiratzen ikasi behar dugu. Ez da erronka makala!